

BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
HERRITARRAK-MAHAIAREN 1. BILERA

Bertaratutakoak:

- Kristina Markina (Herritarrak arloko batzordekidea, Kultura arloko zinegotzia)
- Ekaitz Aranberri (Euskara, Gazteria, Komunikazioa eta Partaidetza arloko zinegotzia)
- Maider Osa (Kultura teknikaria)
- Rosa Errazkin (Laboratoriumeko arduraduna)
- Estepan Plazaola (Euskara zerbitzuko burua)
- Iñaki Ugarteburu (Kirol teknikaria)
- Xabier Legorburu (Gizarte Zerbitzuetako burua)
- Nagore Narbaiza (Hezkuntza eta partehartze teknikaria)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Oihane Arruabarrena (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 18:30.

Udalak kontratatutako aholkularitza-enpresako kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, "Bergara 2030 egin herrixa" prozesuaren baitan diseinatuko den Bergarako Plan Estrategiko Jasangarria diseinatzeko aurrera eramango den parte-hartze prozesua (bai udal mailan zein herritarrekin) azaldu dute eta bide batez, prozesuaren beraren mugariak zeintzuk izan diren laburbildu dute.

Ondoren, herritarrak-mahaiaren 1. Saioko helburuak 2 direla aipatu dute (aholkularitza-taldeko kideek zuhaitz batean irudia erabili dute azalpenak emateko):

- 1) Gaur egun bergarako dituen ahuleziak eta beharrak antzematea, eta baita, potentziatu beharreko indarguneak ere. Horiek guztiak zuhaitzaren sustraiak izango lirateke.
- 2) Egungo egoeratik abiatuz, 2030 urtera begira irudikatzen dugun Bergara lortzeko helburuak adostea. Helburuak zuhaitzaren etorkizuneko fruituak izango lirateke.



2 horiek erdiesteko asmoz, dinamika ezberdinak garatu dira bileran zehar eta honakoak dira lortutako emaitzak:

LEHEN DINAMIKA: ZUHAITZAREN SUSTRAIAK ZEINTZUK DIREN ZEHAZTEA

Lanketa hau egiteko, batetik udalerriko ongizatearen, etxebizitzaren, hezkuntzaren, euskararen, kulturaren eta kirolaren ikuspuntutik gaur egun dauden ahuleziak eta beharrak antzeman dituzte bertaratutakoek, eta bigarrenik, alderdiok etorkizunean egoera hobea izan dezaten ahalbidetzeko herriak dituen indarguneak zerrendatu dituzte. Horiek guztiek irudikatu dugun zuhaitzaren oinarria (hau da, sustraiak) osatu dute, etorkizuneko erronkak eta helburuak finkatzen lagunduko digutenak.

AHULEZIAK ETA BEHARRAK:

Ongizatea eta etxebizitza:

- Zaintza arloan duintasun eza
- Etorkizuneko erronken aurrean estrategia, baliabide eta gaitasun falta
- 185/2015 Dekretuaren mankomunitate mailako garapena geldituta dago
- Gizarte zerbitzuetako lan talde profesionalaren dimentsio desegokia
- Segregazioari aurre egiteko estrategia eza
- Udarako zerbitzuen eskaintzan eta kudeaketan bikoizketa ematen da Udala eta Jardun elkarrearen artean.

Hezkuntza:

- Bertako hezkuntza maila desberdinen (formazioak, ikastetxeak, unibertsitatea...) arteko elkarlan falta
- Ikastetxe publikoen eta kontzertatuen aurrean udal gobernua lerrokatu egiten dira

Euskara:

- Arlo sozioekonomikoan erabilera baxua
- Ludikotasunarekin lotzeko zailtasunak
- Migrazioen aurrean egitasmo sendo falta

Komunikazioa eta partaidetza:

- Herritar ororena iristeko zailtasuna
- Gazteekin (18 urtetik gorakoekin) lan egiteko zailtasuna

Kultura:

- Kultura elkarteak batzen dituen gune edo espazio eza
- Pandemia egoerak etorkizun hurbilean ekarri dezakeen egoera eta ohitura aldaketen aurrean plangintza eza
- Udalerriko historiaren gaineko zabalkunde falta, herri mailan nahiz kanpoan
- Turismo nahiz kanpotik etorritako artista nahiz hizlariak artatzeko baliabide falta
- Goiko Tock-ean dinamika falta

Kirola:

- Kirol instalazio batzuen mantentze eta berriketa lanetarako aurrekontu falta
- Emakume erreferenteen gabezia

INDARGUNEAK ETA AUKERAK:

- ✓ 185/2015 Dekretua, 2030. urtera begira behar diren erantzunentzako baliabide juridikoa dena
- ✓ Herri gairako (eskualde mailako...) dinamika baliatzea arlo desberdinetan
- ✓ Udalerriko maila sozioekonomikoa
- ✓ Hezkuntza eskaintza oso zabala
- ✓ Udala UNED patronatuko kide da %10ean
- ✓ Herritarren elkarlanerako ohitura. Ekintzaile, militante eta eragile sare indartsua
- ✓ Arlo desberdineko eragile ugartasuna eta sormen gaitasuna nahiz joera
- ✓ Udalaren eta kultura mahaia zein elkarrean arteko lankidetzak
- ✓ Kultura eskaintza zabala eta kontsumorako ohitura
- ✓ Goiko Rocken partaidetza handia (100 gazte-heldu)
- ✓ Historikoki, pertsonaje, gertaera eta ondare interesgarria eta oparua
- ✓ Elkarrean nahiz udal administrazioaren euskararekiko atxikimendua
- ✓ Egun gazte eta guraso (gazte) belaunaldia euskara hizkuntzan prestatua dago
- ✓ Udal kirol instalazioen nahiz elkarrean sarea eta eskaintza
- ✓ Haur eta nerabeentzako ekimen ugari. Jardun, herrian egiten den ume eta nerabeei zuzendutako aisialdi eskaintza ororen kudeatzailea (bakarra)



BIGARRIN DINAMIKA: 2030 FRUITUAK ZEHAZTEA

Oinarri horietatik abiatuz, 2030 urtera begira Bergarako ongizatea, hezkuntza eta kultura bultzatzeko lortu beharreko **helburuen eta erronken zerrenda** jaso da (hauek aholkularitza-enpresak aztertuko ditu eta helburutan bilakatuko ditu):

- Justizia soziala bermatzen duen herria izatea
- Arlo eta ekimen orotan eta oro jasangarritasuna oinarrizko irizpide eta helburu izatea
- 185/2015 Dekretua garatuta izatea
- Mendekotasun egoeran dauden eta 3. adineko pertsonen zaintza unibertsala eta doakoa izatea

- Gizarte zerbitzuaren erantzuna azkarra izatea eta egoeraren premiei erantzuteko gaitasuna izatea
- Kultura elkarteen elkarlana nahiz sinergia ahalbidetuko dituen erabilera anitzeko kultura azpiegitura sortzea, udalerriko kulturaren epizentro modura. Bertan ere udaleko kultura zerbitzua kokatuz
- Herritar ororen interes eta beharretara egokitutako kultura eskaintza izatea
- Bergararren %75ren bizi estiloa aktiboa edo nahiko aktiboa izatea
- Anitza, ekintzailea eta irisgarria izatea. Haurren herriaren filosofia ere gidalerro izatea
- Bergarak duen balio historiko nahiz zientifikoagatik maila lokal nahiz horretatik gaindi ezaguna izatea, baita horrek herritarrengan harrotasuna sortzea ere
- Herritarrek kultura zientifiko zabala izatea eta euren bizi kalitatearen hobekuntzan eragitea
- Bergara euskararen ezagutza, erabilera eta zabalkunderako egoitza izatea
- Herritar orok, etorkinek barne, euskara menperatu eta erabiltzea, eta hori erdiesteko estrategia, baliabide nahiz tresnak martxan izatea

2. dinamikarekin amaitu ostean, hurrengo bileran, helburuetatik abiatuaz arloko ekintzak adostuko direla azaldu dute aholkulariek. Bestalde, gaurko bilerara etortzeko aukerarik izan ez duten eragileei eta baita gaurko saiora bertaratu direnei ere, ekarpenak egiteko aste beteko epea ematea adostu da.

Honenbestez, bilera 20:10etan amaitu da.